




Arturrek,
hura ikusirik,
sua zeriola ekin zion enperadoreari;
ezpata kolpe batez
buruko estalkia ebaki zion,
eta burua **ere bai**,
hortzetaraino.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



The background is a collage of various images related to learning and writing. It includes several open books, some showing text, and others showing blank pages. There are also images of pens, pencils, and a spiral notebook. The collage is set against a light blue background with a subtle pattern of small, colorful dots.

Ez zekiten idazten,
eta irakurtzen ere ez.

Eta juntagailuaren bidez loturiko bi perpaus dira aurreko bi adibideon abiapuntu:

- Ezpata kolpe batez, buruko estalkia ebaki zion, **eta** burua **ere** ebaki zion.
- Ez zekiten idazten, **eta** irakurtzen **ere** ez zekiten.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Perpaus horietan, aditza ken dezakezu, errepikaturik baitago, eta haren orde *bai* edo *ez* jarri, perpausa baiezkoa ala ezezkoa den.

- Ezpata kolpe batez, buruko estalkia ebaki zion, *eta* burua *ere bai*.
- Ez zekiten idazten, *eta* irakurtzen *ere ez*.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Hona beste zenbait adibide:

- Egongela hankaz gora dago, **eta** logela **ere bai**.
 - Egongela hankaz gora dago, eta logela ere hankaz gora dago.
- Bi minuturik behin, alargunari begiratzen zion, **eta** semeari **ere bai**.
 - Bi minuturik behin, alargunari begiratzen zion, eta semeari ere begiratzen dio.
- Arratsaldean bueltatu nintzen zubira. **Eta** iluntzean **ere bai**.
 - Arratsaldean bueltatu nintzen zubira. Eta iluntzean ere bueltatu nintzen zubira.
- Zure adiskidea Gorlizera doa; **eta** ni **ere bai**.
 - Zure adiskidea Gorlizera joango da; eta ni ere Gorlizera joango naiz.



Universidad
del País Vasco



Euskal Herriko
Unibertsitatea



Okerrak dira, ordea, beste hauek, bi-biak ageri baitira, aditza eta *bai*:

- * (...) bere logela **ere bai** hankaz gora **dago**.
- * (...) eta semeari **ere bai begiratzeko** dio.
- * (...) iluntzean **ere bai bueltatu nintzen** zubira.
- * (...) eta ni **ere bai** Gorlizera **joango naiz**.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



ERE-ren segidan ez ezik, aurretik ere ager daitezke *bai* eta *ez* partikulak, tartean erreferentea dela.

Eta juntagailuaren ondoren:

- Egongela hankaz gora dago, **eta bai** logela **ere**.
- Bi minuturik behin, alargunari begiratzen zion, **eta bai** semeari **ere**.
- Haurrok ez genekien haren benetako izenik, **eta ez** haren deiturarik **ere**.
- Nehork ez du jakingo nor zaren, **eta ez** non zauden **ere**.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Eta juntagailuaren aurrean:

- Egongela hankaz gora dago, **bai eta** logela **ere**.
- Bi minuturik behin, alargunari begiratzen zion, **bai eta** semeari **ere**.
- Haurrok ez genekien haren benetako izenik, **ez eta** haren deiturarik **ere**.
- Nehork ez du jakingo nor zaren, **ez eta** non zauden **ere**.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

